

«Arloa»

2019IAKU0017

**2019-11-26an  
UDALBATZA.**

**EGINDAKO**

**OHIKOA**

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO  
DE LA CORPORACIÓN. Día 26-11-  
2019.**

**BERTARATUAK- ASISTENTES**

**Alkate-Udalburua**

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

**Zinegotziak**

Purificación Regidor Varela  
Antonio Regaño Sájeras  
Josu Ezkurdia Santamaría  
Ana Belén de Castro Ramos  
Eluska Irazu Henández  
Nestor Arana Arexolaleiba  
Dorleta Sologaistoa Aguiriano  
Ander Errarte del Pozo  
Iñaki Kerejeta Gorostiza

**Idazkaria**

**EDURNE ITURBE LASKURAIN**

Eskoriatzan, 2019ko azaroaren 26an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ohikoa Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Maite Uribe Beristain.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Maite Uribe Beristain

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA4XPFC.n4ks>

**Ohikoa Udalbatza  
Pleno Ordinario**

## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2019/10/22an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

## **2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.**

2019ko azaroaren 19ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz eman da 24. kreditu aldaketa espedientea onartzeko erabakiaren berri.

## **3.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2019ko hirugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

## **4.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZAK 2019KO BIGARREN ETA HIRUGARREN HIRUHILEKOETAN JARRITAKO ERAGOZPENAK.**

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzailetzak legezkotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2019ko apirilaren 1etik 2019ko irailaren 30era arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

1.- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari KULTURA departamentuari egindako 4. eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT) (Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakin partziala, 2019ko 3.a).

**Ohikoa Udalbatza**  
Pleno Ordonario

2.- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari KULTURA departamentuari egindako 5. eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT) (Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakin partziala, 2019ko 3.a).

4.- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari KULTURA departamentuari egindako 6. eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT) (Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2019ko 4.a).

5.- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari KULTURA departamentuari egindako 7. eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT) (Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakin partziala, 2019ko 5.a).

7.- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari EUSKARA zerbitzuari egindako 1. eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT) (Euskara zerbitzuari emandako kutxa aurrerakin partziala, 2019ko 1.a).

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

#### **5.- GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HAUR ETA GAZTEEN SUSTAPENERAKO ERAKUNDEARTEKO SAREARI, GAZTEMATIKARI, ATXIKITZEA.**

Botere publikoek haur, nerabe eta gazteei dagokienez duten ardura berezia ez da haien babestera mugatzen; haur eta gazteen sustapena sustatzea ere badute xede. Haur, nerabe eta gazteen inguruko berariazko politika publikoetan, babes eta sustapena alderdi osagarri eta ezinbestekoak dira; izan ere, pertsonen bizitzako aldi horien berezko zaurgarritasunaz arduratzea bezain funtsezkoa da gizakien bizitzan oinarrizkoak diren etapa horietan haien garapen osoa bultzatzea. Haur eta gazteen sustapenerako politikek, haien babeserako politikekin batera, haur, nerabe eta gazteentzako berariazko jardueren esparru bat osatzen dute eta, aldi berean, haur, nerabe eta gazteen eskubideekiko ardura areago nabamentzen dute eta eraginkorrago egiten, hala politika publiko guztietan nola gizarte bizitzan.

Euskal Autonomia Erkidegoak oraindik gazteriari buruzko lege orokor edo globalik ez badu ere (onartzeko bidean dago), ezin da bazter utzi arlo horretan izan den jarduera arauemaile

eta planifikatzailea, besteak beste gazte planetan jasoa. Arautze eta partaidetza jarduera hori lagungarria izan da haur eta gazteen sustapenaren jarduketa esparrua garatu, moldatu eta ezagutzera emateko; horren fruitu gisa nabarmendu daitezke, adibidez, Euskadiko Kontseiluaren 6/1986 Legea eta Kultura sailburuaren 1999ko abenduaren 10eko Agindua, Gazteen Euskal Behatokiari buruzkoa.

Hain zuzen ere, azken hogeita hamar urteetan Gipuzkoako gizarte zibilak eta erakunde publikoek ibilbide nabarmena egin dute haur eta gazteen sustapenean. Ibilbide horrek ardura publikoa eta lankidetzazko partaidetza baliatzeko eredu bat ekarri du, hiru etapak, haartzaroa, nerabezaroa eta gazteria, *continuum* gisa hartzen dituena. Haur eta gazteen sustapenerako politika sektoreen arteko koordinazioa bultzatu eta zeharkako eragina izan nahi duen arlo gisa eratu da haur, nerabe eta gaztekin zuzenean esku hartzeko zerbitzu propioak dituena, haur eta gazteen partaidetza sustatzu politika sektorial guztietan eta gizarte bizitzan haur, nerabe eta gaztekin adeitsua edo haien aldekoa izango den ikuspegij bat sortzeko.

Gertuko udalen ardurapeko zerbitzu eta jardueren aldeko apustua egiten jarraitu dugu, bai eta koordinazio eta laguntza lanetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtzia egituratzen eta indartzen ere, udalaz gaindi eta lurralte mailan. Apustu horri esker, 2009an Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea, Gaztematika deitua, sortu zen. Sare horrek, hainbat urtez martxan egon eta hobetuz eta prozesu eta aktibo baliotsuak sortuz jardun ondoren, udalen eta Aldundiaren arteko lankidetza hitzarmenak oinarri harturik, Gipuzkoako biztanleria eta lurralte ia osoa hartzen du, eta ehun zerbitzu egonkor baino gehiago ditu martxan.

Ibilbide hori eginda, gaur egun ezinbestekoa da sare hori juridikoki berresteak, mantentzea eta are sakontzea, jardunbide egokiak trukatzeko eta arlo horretan zaitasun edo gabezia gehien dituzten udalei laguntza instituzionala emateko ez ezik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan partaidetza eraginkorra sendotzeko topagune eta proposamenen iturri izan dadin, jardunbide egokiak partekatu ahal izateko sare eta esparruak eraikiz, sinergiak bilatzu eta gazteen sustapenerako prozesuak berrelifikatz, modu horretan sorkuntza partekatuaren eta lankidetzazko gobernantzaren alde eginez. Foru dekretu honek, beraz, aitorpen juridikoa ematen dio sareari, eta, horrekin batera, baita merezi duen bultzada ere.

Horren ondorioz, 2019ko apirilaren 16an, elaborazio eta kontraste prozesu zaindu baten ondoren, besteen artean EUDELekin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakunde arteko Sarea sortzeari buruzko Dekretua onartu zen. Onarpen honekin Sareari aintzatespen juridikoa ematen zitzaison eta, bide batez, merezi duen bultzada.

Hain zuzen, Dekretu honen 12. artikuluan, Udalak Sareari atxikitzeari buruz ondorengoa esaten da:

**12. artikulua. Udalak eta gainerako tokiko erakundeak Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakunde arteko Sareari atxikitzea.**

1. *Udalen atxikimendua sarera, honi buruzko berariazko udal akordioaren bidez gauzatuko da.*

*Sareari atxikitzeak gizonen eta emakumeen arteko berdintasun ikuspegia txertatzea dakar berekin, eta konpromiso hauetan betetzea:*

- a) Aktiboki parte hartza Sareko organo eta egituretan esleitutako pertsonen bitartez, hala arlo politikoan nola teknikoan.
- b) Proposamen eta ekimenen bidez Sarearen funtzionamendua bultzatzea.
- c) Sareko organo edo egitura eskudunen bidez Foru Aldundiak tokiko erakundeen alde haur eta gazteen sustapenaren arloan bideratzen dituen diru-laguntza lerroak banatzeko irizpideak zehazteko eta ezartzeko prozesuetan parte hartza eta erabakiak hartza.
- d) Haur eta gazteen sustapenerako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta bestelako jarduera hezitzairen batzuk proposatzea, Sarean eskumena duten organo edo egiturek eztaba ditzaten eta erabakiak har ditzaten.
- e) Haur eta gazteen sustapena errazteko gida metodologikoak edo bestelako edozein bitarteko edo tresna proposatzea, eta batez ere sustapen planen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
- f) Sareari ezagutzera ematea haur eta gazteen sustapenaren arloan martxan jarri diren jardunbide egokiak, parte hartzen duten erakundeen ezagutza aberastu dezaketenak eta haur eta gazteen sustapenerako foru edo udal politikak –eta gainerako tokiko erakundeenak– hobetu ditzaketenak.
- g) Sarearen aurrekontuak ezagutzea eta, hala badagokio, haien inguruan erabakiak hartza, horretarako eskumena duten organo edo egituren bidez.
- h) Foru aldundiak udalerriei eta gainerako tokiko erakundeei laguntza teknikoa eta lankidetza eskaintzeko aurrera eramatzen dituen prozesuetan laguntza, arazoak edo konpondu gabeko auziak behar bezala identifikatz eta haur eta gazteen sustapenerako tokiko politikak hobetza xede duten arauak eta ordenantza ereduak, proposatutako gida metodologikoak eta Sarean bultzatzen den bestelako edozein ekimen sustatuz.
- i) Sarea dinamizatzea dauden egituren bitartez, eta, beharrezkoa balitz, Foro Teknikoak koordinatzea.

Gure udalaren kasuan, aipatutako Sarean 2004tik hartu du parte, eta denboraldi horretan, parte-hartza, nagusiki, urtero hitzarmenak sinatuz gauzatu da

Horren ondorioz *gure* entitatea, denboraldi horretan, Gaztematika Sarearekin lankidetzen aritu da, eta Sarea osatzen duten entitate desberdinek egiten duten lanaren onurak jaso ditu: Erreferentziazko markoa, eztabaiderako eta elkarriketarako hainbat gune, baliabide, gaitasun eta prozesu bateratuak, aholkularitza teknikoa eta bide-laguntza, lurralte mailako plan komun bat, arloari buruzko ezagutza, jakintza eta prestakuntza, diru-laguntzak, lurralte mailako programak, proiektuak eta kanpainak...

Horrenbestez, gure udalak Gipuzkoako Lurralte Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakunde arteko Sarearekin bat egiteko xedezi, hori arautzen duen Dekretuko 12. artikuluak ezarritakoaren arabera, Udalbatzarrak, Euskara, Gazteria eta Hezkuntza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako Udala Gipuzkoako Lurralte Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakunde arteko Sareari, Gaztematikari, atxikitzea.

**Bigarrena.-** Eskoriatzako Udalak bere gain hartzen du atxikipen horrek dakartzan konpromiso guztiak betetzea.

#### **6.- GIZARTE LARRIALDIETARAKO ETXEBIZITZA ERABILTZEKO BAIMENA BERRESTEA.**

Gizarte Zerbitzueta Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Gizarte Zerbitzueta Batzordeak ..... expedientedun pertsonari gizarte larrialdiatarako etxea aldi baterako erabiltzeko behin-behineko emandako baimena berresteia.

**Bigarrena.-** ESKORIATZAKO UDALAK KUDEATUTAKO GIZARTE LARRIALDIETARAKO ETXEAREN BARNE ERREGIMENEKO ERREGELAMENDUKO 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baimenaren indarraldia luzatu ahal izango da, aldez aurretik horren beharra egiaztatzen bada, eta zerbitzuaren ardura duen gizarte langileak aldeko txostenetan egin eta Gizarte Zerbitzueta Batzordeak baimentzen badu.

#### **7.- “AHOZKOTASUNA ETA BERTSOLARITZA” ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.**

Euskara, Gazteria eta Hezkuntza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** “AHOZKOTASUNA ETA BERTSOLARITZA PROIEKTUA” izeneko zerbitzua GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEARI esleitzea, honako baldintza hauetan:

**Ohikoa Udalbatza**  
Pleno Ordonario

- **Iraupena:** Zerbitzua 2019ko irailaren eta 2020ko ekainaren bitartean eskainiko da.
- **Prezioa eta ordainketa epeak:** Zerbitzuaren prezio osoa 6.669,39 eurokoa izango da (BEZ barne) eta ordainketa epeak honako hauek izango dira: zerbitzuaren % 40, hau da, 2.667,75 €, 2019ko abenduan ordainduko da; eta gainerako % 60a, hau da, 4.001,64 €, 2020ko ekainean. Horretarako, esleipendunak aurrez faktura aurkeztu beharko du, zerbitzuko arduradunaren onarpena izan beharko duena
- **Baldintza teknikoak:** Kontratu honen xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute. Beraz, kontratuaren xedea betetzeko herritarrekin eta udalarekin sortzen diren harreman guztiak (ahozkoak nahiz idatzizkoak) euskara hutsean izango dira. Gainera, proiektua gauzatzeko Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak kontratatuko dituen langileek, proiektuak euskaraz gauzatzeko behar besteko hizkuntza maila izan beharko dute.

**Bigarrena.-** 2.667,75 euroko gastua aurtengo aurrekontuaren 0400.226.335.00.08 partidaren kontura onartzea, eta gainontzehoa, hau da, 4.001,64 €, 2020. urteko aurrekontuaren kontura.

**Hirugarrena.-** Ahalmena ematea Alkateari aurreko baldintzetan oinarritutako administrazio kontratua sina dezan.

#### **8.- DEIALDIKO GAI ZERRENDAN GAI BAT SARTZEA BERRESTEA. ELIKAGAIEN XAHUKETAREN AURKAKO EUSKADIKO PLATAFORMARI ATXIKITZEA.**

EH BILDUko 4 zinegotzi abstentuta, eta bertaratutako ginerako 6 zinegotziek alde bozkatuta, Udalbatzarrak erabaki du gaia gai zerrendan sartza berrestea. Ander Errartek bere taldeko zinegotzien abstentzia justifikatu du esanez, horrelako kanpainekein ados baldin badaude ere, deialdiarekin batera bidalitako informazioa dutela bakarrik, eta informazio gehiago behar dutela.

Gai zerrendan sartza berretsita, Alkateak hartu du hitza eta esan du elikagaien xahuketaren aurka egiteko proposamen bat dela, EUDELetik datorrena, eta erakunde publiko eta pribatuei eskatzen zaien lehenengo gauza plataforma bat osatzeko atxikimendua dela, gero, horrela erabakiz gero, kanpainak egin ahal izateko guztiion artean. Atxikituz gero, udal arloren baten esku utziko litzateke kanpaina horiek ekarriko luketen jarduerak kudeatzea eta horien jarraipena egitea; eta esan du bere proposamena dela arlo hori ekonomia garapen jasangarrirako arloa izatea, hau da, erabakia atxikimenduari buruzkoa bada ere, gai horri buruz gero sor daitezkeen kontuak ekonomia garapen jasangarrirako batzordean aztertuko lirateke, eta, epe motzera, abenduaren 9tik 15erako asterako programatutako kanpaina dagoela, helburuen artean, besteak beste, plataforma existentzia ezagutzera eman nahi duena. Berriz esan du

proposamena EUDELetik datorrela, nahiz eta Nekazaritza Sailburuordetzaren ekimenez izan, eta Udalbatzarrera batzordearen diktamenik gabe ekarri dela kanpaina abenduaren 9tik 15era arteko asterako programatu delako, eta Udalbatzarra 17rako aurreikusita zegoenez, ez zegoelako denborarik aurrez atxikitzeo.

Josu Ezkundiak aurreratu du datorren asteleheneko Ekonomia Garapen Jasangarrirako batzordean aurreikusitako lehenengo kanpainan zer jarduera egin aztertuko dela.

Eluskak esan du ez duela ulertzen zergatik ez den gaia asteleheneko batzordean jorratu arte itxaron eta gero Udalbatzarrera ekarri.

Josu Ezkundiak azaldu dio edozein kanpainen parte hartu aurretik lehen urratsa bertara atxikitzea dela, eta atxikimendua abenduaren 17ko Udalbatzarrean aztertuz gero, abenduaren 9tik 15erako asterako aurreikusitako kanpaina amaituta egongo zela eta ezingo zela parte hartu. Gura dena da gaur hartza erabakia, eta horrela, kanpainen parte hartu ahal izatea, eta asteleheneko batzordean eztabaidatu eta erabaki kanpainen egin beharreko jarduerak.

Bertaratuei argitu zaie ere atxikimenduak etorkizunerako konpromisoa dakarrela, eta ez dela unean-uneko zerbait. Jarduera dinamika bat martxan jartzea esan nahi duela.

Alkateak esan du gauza bat argi utzi nahi duela gaia bototara jarri aurretik: lehen esan duen bezala, EUDELetik datorren eskaera bat dela, aho batez onartua EUDELek, non EAJ/PNV, EH BILDU eta PSOEk parte hartzen duten; beretzat eta bere taldearentzat horrelako adostasunarekin, hau da, alderdi politiko nagusienenarekin, zerbait baldin badator gaia eztabaidatua eta aztertua izan denaren nahikoa berme dela eta merezi duela udaletan aztertzea; aho batez onartu baldin bada adostasun politiko eta soziala lortu delako izan dela, eta eurak (bere taldeak) ez direla adostasun politiko eta sozial horren aurka arituko, eta horregatik, bere taldeak EUDELek egindako proposamenak onartzen dituela, eta hau dela horietako bat, eta alderdi nagusiak ados jartzea lortu baldin badute beraiek ez dutela hori zalantzan jarriko.

Nestor Aranak zein Eluska Irazuk aitortu dute, jasotako azalpenaren ondoren, ulertzten dituztela gaia abendurako Udalbatzarrerako ez uzteko arrazoiak.

Eztabaida amaituta, atxikimendu proposamena bozkatu da.

#### HARTUTAKO ERABAKIA

Iazko urrian, EUDELek, beste 60 erakunde publiko eta pribaturekin batera, **Elikagaien Xahuketaren aurkako Euskadiko Plataforma** sortu zuen Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Industria Sailburuordetzaren menpeko ELIKA FUNDAZIOAren koordinaziopean.

Ekitaldi horretan jendaurrean aurkeztu zen Euskadiko elikagaien xahuketa murrizteko ekintza plana diseinatzeko garatuko zen Jarduketa Plana, Euskadi Basque Country 2030 Agendan integratua. Aurten, sentsibilizazio jardunaldiez gain, lau lan talde sortu dira, martxan jarriko den Ekintza Plana landu dutenak, eta jasotzen diren ekarpenekin osatzen doana.

Ulertzten da, beraz, iritsi dela herri bakoitzak eta udal bakoitzak aurrerapausoa emateko unea eta plataforma horretako partaide izatekoa ahots propioarekin.

Horregatik, Plataformak (ELIKA- Eusko Jaurlaritza) proposatzen du datorren abenduaren 9tik 15era Euskadiko elikagaien xahuketaren aurkako astea ospatzea, nahi duten udal guztiak plataforman sar daitezen ekintzaren bat eginda aste horretan.

Aste hori, Gabon aurretik izanda, oso egokia da herritarra kontsumo arduratsu baterako, eta era berean, erosketa arduratsu eta planifikatu baterako, sentsibilizatzeko; helburua izanik elikagaien xahuketa murriztea.

Eskoriatzarako interesgarritzat jota Udala plataforma horretan sartzea, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Elikagaien Xahuketaren Aurkako Euskadiko Plataformari Atxikitzea.

**Bigarrena.-** Ekonomia Garapen Jasangarrirako arloak kudeatu dezala plataforma horretan alta ematea eta ekintzak antolatu ditzala datorren abenduaren 9tik 15era egingo den Euskadiko elikagaien xahuketaren aurkako asterako.

**9.- HAKOBAREN (Hizkuntza Politika Gaietarako Herri Administrazioen Koordinazio Batzordeak) ESKARIZ ALKATETZAK AURKEZTEN DUEN ERAKUNDE ADIERAZPEN PROPOSAMENA EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNARI (2019) BURUZ.**

Hitza hartuta, alkateak argitu du EUDELek HAKOBAREN ekimenez aurkeztutako proposamena ez dela adierazpen instituzional gisa aurkeztu, baizik eta mozio gisa; izan ere, adierazpen bat izateko, udal-talde guztien onespina behar zen, bozeramaileen bidez, eta Udal honetan ez da adostasun hori lortu; horregatik erabaki da Eudeletik datorren proposamen hau mozio gisa aurkeztea.

Testuaren edukia aipatu ondoren, esan du errepikatu eta nabarmendu nahi duela EUDELek egindako proposamena dela; EUDELen adostasun politikoa egon dela, eta Eskoriatzan adostasunik egon ez denez, mozio gisa aurkezten dela.

Onartu dadin aurkezten den mozioaren testua irakurri du ondoren:

***2019KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA***

***Bide berriak, modu berriak***

***Ongi etorri etorkizunera!***

*Jauzika dator euskara. Jauzika mendez mende. Jauzika egunez egun. Bihotzetik bihotzera jauzika. Eta, batez ere, ezpainez ezpain jauzika.*

*Bere eguna du gaur euskarak, Nazioarteko Eguna hain zuzen ere. Baino ongi asko dakigu euskal herritarrok eta euskal hiztunok gaur ospatzenten duguna ez dela egunaren mugetara errenditzen. Jauzi egiten du euskarak egunaren mugaz gaindi ere. Jauzi egiten du euskarak muga guztiez gaindi, gure ahoan bizi-bizi, gure belarrietan zernahitarako prest beti. Noranahiko euskara gurea, denona.*

*Zer genuke, bestela, gaur ospatzeko?*

**Ohikoa Udalbatza  
Pleno Ordonario**

*Bide luzea egina du euskarak, eta harekin batera euskal hiztunok eta euskaltzaleok, etorkizuna irabazteko etengabeko ahaleginean. Bide luzea du egina euskal gizarteak euskara plaza guztietara duintasun osoz eramateko. Eta asko lortu da. Jardunak berak erakutsi digu, erakusten digu egunero, ezinbestekoa dela bide horiek, gauzak egiteko moduak, etengabe egunearatzea, eraberritza, irudimenez biziagotzea. Eta argi erakusten ari gara euskalgintzan ari garen guztiok prest gaudela, eta gogotsu, irakaspena barneratzeko eta praktikan mamitzeko.*

*Jarduerak adostu ditugu. Diagnostikoak hurbildu ditugu. Ekimenak josi ditugu elkarrekin. Elkarrekin ebaluatu dugu egindakoa. Elkarrekin hobetuko dugu hobetu beharrekoa.*

*Eta gizarteak erantzun sendoa eman du, onetsiz euskararen erabilera era iraunkor eta argian handiagotzeko estrategia eta molde berriak.*

*Badugu, bai, zer ospaturik aurtengo Euskararen Nazioarteko Egun honetan ere.*

*Ezagutzen ez genuen modu batean aktibatu zituen iazko gizarte-ariketa arrakastatsuak euskal hiztunak, neurri batekoak nahiz bestekoak. Aktibatu zituen, baita ere, herri agintea eta askotariko gizarte-erakundeak, ikuspegi berri batetik. Eta, batez ere, estrategiak eta diskursoak eraberritzeko joera eta prestasuna aktibatu zituen.*

*Aldekotasuna, horrela, konpromiso eragingarri eta praktiko bihurtzeko bidean jarri zen.*

*Badator, hurbileko ostertzean, ekimen haren jarraipena. Euskalderria berraktibatuko dugu, berriz ere denon arteko adostasun eta lankidetzen, eta hurrengo urteko Euskararen Nazioarteko Egunak izango du, ezinbestez, toki propioa ariketa sozial erraldoi horren ingurumarian.*

*Ez da, baina, horretara mugatzen euskararen erabilera areagotzeko eginahala. Ezin inola ere horretara mugatu. Alorrez alor landu beharra dago erabileraren landarea, sendo haz dadin.*

*Ugari dira berariazko lanketa eskatzen duten alorrak, eta horien guztiak artean bida bat gizarte-bizitzaren gune-gunean dagoena: ekonomia, lana eta kontsumoa biltzen dituen arloa, hain zuzen ere, gizartearen eta herritarron bizitzaren motore nagusia baita.*

*Arlo sozioekonomikoak eta euskararen erabilerak elkarri egin behar dioten ekarriaren garrantzia ez da guitariko inorentzat ezezaguna. Bai baitakigu ez dela hizkuntza normalkuntzarik lanaren, ekonomiaren eta kontsumoaren munduan erro sakonik ez duenik.*

*Sendoak dira, alor horretan ere, eragile nagusiak egiten ari diren urratsak. Eta horietan lehena, zalentzarik gabe, euskararen erabilera askotariko erakundeen izaeraren ezaugarrien artean txertatzea dago.*

*Bide berriak, modu berriak, arlo sozioekonomikoan ere.*

*Estrategia berriak, beraz. Konpromiso berriak. Konpromisoari erantzuteko molde berriak. Praktika berriak.*

*Azken batean, aldekotasun eraldatzailea da gure gizartea, euskal hiztunok eta euskaltzaleok aktibatuz, bideratzen ari dena.*

*Bertan du euskarak etorkizuna.*

*Bide eta praktika berrietatik datorren etorkizuna.*

*Ongi etorri etorkizunera!*

Irakurketa amaituta, eta berriz esan ondoren Eskoriatzan ez dela lortu erakunde adierazpena izateko behar zen adostasuna, bototara jarri da.

Aldeko 6 botorekin (EAJ/PNVko 5 eta EEEko 1) eta 4 abstentziorekin (EH BILDIkoenak) Udalbatzarrak mozioa onartzea erabaki du.

#### BOTO AZALPENA:

Nestor Aranak dio hilaren 19an jaso zutela mozioa, eta Eudelek aurkeztutako adierazpena oso orokorra iruditzen zaiela. Nahi dutena, dioenez, gogoeta-prozesu bat dela, horrelako kontuekin egin ohi izan den bezala, eta denbora gehiago behar zutela testua aztertzeko. Gainera, bere ustez, ekintza zehatzagoak zehaztu behar dira; bere ustez, ez da erraza adostasun batera iristea asko zehaztu nahi bada, baina Udal honen kasuan adostasun batera iristeko ahalegina egin zitekeela gehiago zehatzuz. Abstenitu egiten direla, kontra ez daudelako, aurrerapauso bat dela ulertzen dutela, baina lehen esan bezala, beraiek pixka bat handinahiagoak direla eta gehiago zehaztu zitekeela uste dutela.

Josu Ezkurdiak erantzun dio aitortzen duela adostutako zerbait izanik deklarazioak oso orokorrak izan daitezkeela, ez direla gai oso zehatzak planteatzen, baina, garrantzitsuena, eta berak nabarmenduko lukeena dela adostutako zerbaiten emaitza direla, eta beraintzat hori oso garrantzitsua dela. Amaitzeko esan du, beste batzuetan esan duen bezala, egin daitezkeen proposamen zehatzak ondo hartuko direla positiboak eta aberasgarriak badira, eta euskarari buruz egoki iritzitako ekarpen guztiak egitera gonbidatzen dituela.

Alkateak uste du egokia dela erakunde adierazpen baten eta mozio baten arteko aldea gogoratzea; erakunde adierazpen bat onartzen denean, esan nahi du herrian dauden erakunde guztiekin bere egiten dutela adierazpen hori herri gisa, eta, mozioa denean, berriz, normalean

alderdi politiko batek aurkezten duela, eta aho batez onartzen bada ere, beti duela identitate politikoa; gainera, gehitu du, mozioaren indarra ez da aitorpenarena bestekoa.

Gure kasuan, jarraitzen du esaten, EUDELEtik etorri diren adierazpen guztiak onartu ditugu azken 4 urteetan, askotan herri honetan lortu ezin izango zen adostasun bat lortzeko modu bat izan delako; eta orain, bai puntu honetan, bai 10.ean eta 11.ean, esaten du, erakunde adierazpenak ditugu eta horietan, zuen jarreragatik, ezin izango dira onartu, eta uste dut horren jakitun izan behar garela. Amaitzeko esan du erakunde gisa argi izan behar dela EUDEL nahikoa esparru dela bertan onartzen dena ordezkari direnen adostasunarekin onartzen dela, eta EUDELEn hemen gauden taldeen ordezkariak daudela, Elizateetakoena izan ezik; eta beste gauza bat dela zer jarduketa mota egin nahi diren eguneroko martxan, atzokoa bezalako egoeretan (azaroaren 25ean egindako kontzentrazioari buruz ari da) "udal gisa hau da esaten duguna" dioen adierazpen batekin aurkeztea izango litzatekeela egokiena, eta hori ez atzo ezta euskararen egunean ere ezin izango dela egin.

Eluska Irazuk erantzun dio ez duela zalantzan jartzen erakunde adierazpen batek indar handiagoa duela, baina ez dagoela ados esandakoarekin, hau da, onartu ez bada, beraien erruz izan denik (EH BILDUKO zinegotziei buruz ari da); beraiek proposamen bat egin ziotela, eta berak bidali ziola, baina ez EUDELekoaren ordez onartzeko, baizik eta bat adosteko; EUDELena oinarri gisa har zitekeela, oso malgua dela, oso orokorra, eta gero herri baten ordezkariak diren heinean, herri horren errealityea ezagutzen dutenak, adierazpen hori herriaren problematikara egokitut ahal izango zatekeela, eta proposamen eta ekintza zehatzak egin, herritarren eta herriaren ongizatea bermatzeko. EUDELekoari ez diotela ezetzik esaten, orokorregia dela eta beraiek gauza zehatzagoak proposatzen dituztela esan du, eta onartu ez bada ez dela beraien erruz, negoziazio batean, esan du, bi alde edo hiru baitaude, eta kasu honetan, norbaiten errua izatekotan guztiona dela esan du, eta erakunde gisa zehaztasun handiagoa izateko eskatzeko eskubide dutela uste duela.

Eztabaidak antzeko bideetatik jarraitu du, bakoitzak lehen esandako gauzak azpimarratzen.

**10.- EH BILDUREN ESKARIZ MOZIO PROPOSAMENA “AZAROAREN 25a, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA” DELA-ETA.**

**Ohikoa Udalbatza**  
Pleno Ordonario

Hitza emanda, Dorleta Sologaistoak hitz egin du, eta adierazi du mozio hau aurkezten dutela EUDELekoa nahiko orokorra iruditzen zitzaielako; beraiek gaia ondo ezagutzen duten herriko hainbat pertsonekin landu dutela mozioa eta proposamen askoz ere zehatzagoak egin nahi zituztela.

Josu Ezkurdiak esan du beraiek aurka bozkatuko dutela, ez mozioak esaten duenaren aurka daudelako, baizik eta nahiago dutelako adostasun bat duen testu baten alde egitea, eta beti ongi eterriak izango direla egin daitezkeen proposamenak.

Bertaratutako 6 zinegotzik aurka bozkatuta (EAJ/PNVko 5 eta EEEko 1) eta beste 4 zinegotzik alde (EH BILDU), Udalbatzarrak ez du onartu jarraian transkribatzen den mozioa:

#### **AZAROA 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA**

*Azaroaren 25a, emakumeen kontra burutzen den indarkeria mota oro, guztiz onartezina dela esateko eguna da; gainera, indarkeria sortzen duten eragile eta egitura guztiak errefusatzen ditugula esateko eguna da, eta gure herrian ez dugula ez bakerik ez normalizaziorik izango emakume izate hutsagatik emakumeak hiltzen eta erasotzen jarraitzen den bitartean aldarrikatzeko eguna. Horregatik, egun honetan erakunde publikoak, borroka horretan dugun lehentasunezko eragile-izaera berretsiz, konpromiso zehatzak hartu behar ditugu.*

*Beraz, Eskoriatzako Udalaren EH Bilduko taldeak honako adierazpen instituzional hau aurkeztu nahi du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta ondoren onartzeko.*

**ZIOA:**

*Azaroaren 25a “Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna” dela-eta, Eskoriatzako Udal honek, bere egiten du gure lurralde, herrialde eta herriak, indarkeria matxistarik gabeko gune gisa eraikitzeko ardura. Eta lehentasunezko konpromiso politikoa berresten du indarkeria mota horren adierazpen guztien kontrako borrokan, egiturazko jatorriaren eta betikotzen duen normalizazioan eraginez, orden sozial patriarkala ezinbestez aldatzeko eta, emakumeak libre biziko diren justizian eta berdintasunean oinarritutako elkarbizitza eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ereduak errealtitate bihurtzeko xedez.*

*Euskal Herrian, estatistikak aspalditik ari dira agerian uzten indarkeria matxistak gora egiten jarraitzen duela: urtea hasi denetik 3 emakume erail dituzte. Hala ere, ezin dugu ahaztu indarkeria*

*honen adierazpen gehienek, egunero gertatzen direnak, normalizatuak eta inbisibilizatuak jarraitzen dutela.*

*Nola hedabideak, publizitatea, telebista, hezkuntza eredua, emakumeen errepresentazio justuaren falta eremu guzietan edo euren presentzia genero estereotipo eta rol diskriminatzialeak bultzatz, hala sinesmenak, praktikak eta jarrerak, besteak beste, injustua den eta emakumeak gutxiesten dituen orden sozialaren parte dira. Orden hori soziala, kulturala, ekonomikoa eta sinbolikoa da, bizitzaren arlo guztiak blaizen ditu, publikoak nahiz pribatuak, eta, emakumeak genero mandatu patriarkalapean izateko asmoz, indarkeria matxistaren adierazpen guztiak erabiltzen ditu.*

*Erailketa matxistek gero eta arreta mediatiko gehiago erakartzen duten heinean, (gehienetan emakumeak berbiktimizatzeko edo erantzukizuna emakumeengana uzteko errelatoekin), jendartea irmoki gaitzesten ditu. Gure ardurak, ordea, haratago joan behar du: indarkeria mota latz hauek legitimatzen eta errazten dituzten indarkeria matxistak, mezu eta adierazpen desberdinak bidez egindakoak guztiak, ikusarazi behar baititugu: jendartean onarpen zabala dutenak eta normalizatuak mantentzen direnak, emakumeek egunero jasaten dituztenak, eta hala izan ez arren intentsitate baxu gisako identifikatzen direnak. Besteak beste, musika munduko hainbat letra zein jarrerek, filme zein bideojokoetako rolek edo hedabideek transmitzen duten indarkeria sinbolikoak ari gara, emakumeen bizitzak eta gorputzak kontrolatzeko saiakerak, eremu guzietan femeninotzat jotzen denaren gutxiespenenaren bidez gauzatzen den indarkeria psikologikoak edo soldata txarretan edo lan baldintza prekarioetan antzeman dezakegun indarkeria ekonomikoak ari gara.*

*Aurten, mugimendu feministaren beste mugarri batean, milaka emakumek hartu dituzte Euskal Herriko kaleak, aski dela ozen esateko; milaka emakumek planto egin dute emakumerik gabe mundua gelditzen dela bisibilizatzeko; eta beste horrenbestek aldarrikatu dute sistema judizialean patriarkala dela eta emakumeak babestu beharrean ardura haien bizkar uzten ari dela esan dutenak, erasotzaileak justifikatuz.*

*Feminismoak erakutsi digu errealtitate bat aipatzeak ikusgai bihurtzen duela: indarkeria, bere adiera guzietan, gizonen eta emakumeen arteko egiturazko ezberdintasunak mantentzenko tresna nagusietako bat den heinean, ikusezin bihurtu da eta alderdi pertsonalei garrantzi handiegia ematen zaie, eta ikusarazi nahi digute indarkeriazko gertakariak arrazoi pertsonalen ondorio direla eta ez arrazoi sozialen ondorio. Ez da nahikoa indarkeria-adierazpen jakin batzuk aipatu eta salatzea, horrelako gertakari latz bat gertatzen den bakoitzean; gertakaria eragin duten arrazoietara jo behar da, sustraira jo behar da, eta hori egitera, erakundeon ardura ere bada.*

*Zeharkako esku hartze integralak eta iraunkorrik abian jarri behar ditugu: berbiktimizazioa baztertuta, emakumeak subjektu aktibo gisa hartuko dituzten esku hartzeak; errudun bilakatuko ez dituen esku hartzeak eta, ahots propioa, eragile aktibo diren neurrian, aitortuko dizkieten esku hartzeak. Horretaz gain, bermatu behar ditugu genero ikuspegi ahalduen barnebiltzen duen artatze sistema eta erreparazio prozesuak, bai banakoak, bai kolektiboak. Giza eskubideaz ari*

*garen heinean, instituzioen betebeharra da, alegia, mota guztietako indarkeriarik gabeko bizitzak izateko eskubideaz.*

*Eta zeregin hori, gure egin behar dugun konpromiso hori, gizartea osatzen dugun eragile guztiok gure egin behar dugu, hala egiten ez badugu, indarkeria matxistari eusten jarraituko dugulako. Denon erantzukizuna delako bakoitzaren eragin-eremutik aurre egitea, indarkeria matxista sortzen, biderkatzen edo normalizatzen duten heinean gure instituzio eta erakunde aldatzea: erakunde publikoak, kultur-eragileak, hedabideak, lan-arloko eragileak eta eragile ekonomikoak, ahaztu gabe banakakook dugun ardura.*

*Tokiko erakundeak, indarkeria matxista guztien kontra jarduteko eremu egokiak dira: erakundeak, eskolak, aisiaaldi edo kirol guneak, etab., betiere jendartea osatzen duten kolektibo eta arlo guztien artean burutu beharreko lana da, denok interpelatzen gaituen arazo soziala den heinean. Horregatik, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi dugu Euskal Herria feministak, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:*

**PROPOSAMENA:**

1.- *Eskoriatzako Udal honek, Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa bere egiten du.*

2.- *Eskoriatzako Udal honek Foru Aldundiari eta Emakunderi / Nafarroako Berdintasunerako Institutuari eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzeko eta indarreko legeria berraztertzeko konpromisoa hartzeko.*

3.- *Eskoriatzako Udal honek herritarrentzako, eta bereziki emakumeentzako, dauden baliabideen gaineko informazioa eskuratzeko bideak erraztuko ditu eta dagokion lurralte mailan, indarkeria matxistaren kontrako zerbitzu-sarearen funtzionamendu egokia, elkarlana eta koordinazioa bultzatuko du, beti ere, kontuan hartuz adin txikikoak eta biktimen seme-alabak.*

4.- *Eskoriatzako Udal honek, neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako jabekuntza jarduerak abiatuko ditu, besteak beste ondorengo gaiak jorratu ahal izateko modu iraunkorrean: autodefentsa feministak, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitate libreak, etab.*

5.-*Eskoriatzako Udal honek, nerabeei eta gazteei zuzendutako sentsibilizazio eta formazio jarduerak iraunkorrik abiatuko ditu emakume eta gizonen arteko harreman parekideak sustatzeko xedez, zehazki: hezkuntza sexu-afektiboa lantzeko, indarkeria matxisten askotariko adierazpenak desnaturalizatzeko, baiezko onespena lantzeko, maskulinitate ereduak lantzeko, arrazoi ezberdinengatik emakumeak pairatzen dituzten egoera desberdinengatik ezagutzan sakonduz: emakume etorkinak, arrazialak, genero identitateak, preso daudenak ... etab.*

6.- *Eskoriatzako Udal honek, indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eskubidea lantzeko jarduera iraunkorrik martxan jarriko ditu besteren artean, omenaldiak, zineforumak, bisibilizazio ekimenak (kaleen izenak edo jardunaldiak, kasu), kalte-ordinaketa, akonpainamendu soziala, etab. jasoz.*

7.- *Eskoriatzako Udal honek, genero indarkeriaren aurrean gizonen bisibilizazioari dei egingo dio, kontrako mezu argiak erabiliz.*

8.- *Erakunde honetatik, hau da, Eskoriatzako udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean.*

9.- *Bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan.*

*Eskoriatzako Ehbildu udal-taldea.*

## **11.- EUDELEN ESKARIZ ALKATETZAK AURKEZTEN DUEN MOZIO PROPOSAMENA AZAROAREN 25ARI BURUZ: “EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA”.**

Bertaratutako 6 zinegotzik alde bozkatuta (EAJ/PNVko 5 eta EEEko 1) eta beste 4ak abstenitura (EH BILDU), Udalbatzarrak erabaki du ondoren transkribatzen den mozioa onartzea:

### **“EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA”** ***INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEI ERREPARAZIORAKO TOKIKO EKINTZAK***

Azaroaren 25a (*Emakumeen aurkako indarkeria desagerrazteko Nazioarteko Eguna*) dela-eta, indarkeria mota honen egitura-izaera nabarmentzen dugu, eta gure konpromisoa agertu nahi dugu emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte bat eraikitzeo. Era berean, nazioarteko esparru juridikoarekin bat etorrita, berresten dugu beharrezkoa dela ekintzak proposatzea esku-hartzearen alor guztietan: **prebentzia, hautematea, arreta, babes, koordinazioa eta justizia**, arreta berezia jarrita biktimei eta bizirik atera diren pertsonei **erreparazioa** ematean.

*Biktimei erreparazioarako printzipioak berekin dakar biktima eskubide-urraketa bizi aurreko egoerara lehengoratzeko beharrezkoak diren ekinzak martxan jartzea. Indarkeria matxistaren biktimen kasuan, xedetzat hartzen da biktimaren bizi-baldintzak funtsean hobetzea, urratutako eskubideengatik*

*erreparazioa jasota eta eragindako minetik berrezarrita. Era berean, ahalduntze-prozesua bultzatu behar da, indarkeria-egoerari aurre egiteko gaitasuna eta autonomia indartu dezaten.*

*Tokiko gobernuek biktimei arreta eskaintzeko alorrean aitortuta dugun erantzukizuna eta eskumena gure gain hartzen dugu, gure herri eta hirietan indarkeria matxista jasaten duten emakumeengandik hurbilen gauden erakundeak garelako. Politikarien eta teknikarien bultzada koordinatuarekin, tokiko erakundeen esku-hartza funsezkoa da erreparatzeko prozesuan, komunitateko bizitza berrezartzen laguntzeko eta biktimei erreparazio publiko eta soziala emateko, indarkeria matxistaren biktimen eta bertatik bizirik atera diren pertsonen inguru hurbilenean.*

*Horren ildotik, Berdinsareako (Berdintasunaren aldeko eta emakumeekiko indarkeriaren aurkako Euskadiko udalen sarea) udaletako berdintasun-teknikarien lana oinarrizkoa eta balio handikoa da, udaletan ekintzarako orientazio eta irizpide komunak eskaintzeko, batez ere, udal txikienetan. Hain zuzen, erreparazioari dagokionez, Indarkeria matxistaren biktamei erreparaziorako tokiko ekintzen gida bat prestatzeko lanean ari dira, tokiko erakundeek indarkeria matxistaren biktimen ordaina jasotzeko duten eskubidea praktikan jarri eta zehaztu ahal izan dezaten, udal eskumenaren esparruan.*

***Tokiko gobernuek konpromiso politikoak betetzeko jardun nahi dugu, eta, horren bidez, indarkeria matxistaren modu guztiak desagerrazten lagundi, honela:***

- *Biktimen eskubideak arreta-prozesu osoaren erdigunean jarrita, euren beharrizan eta eskariei entzunez eta arreta emanet.*
- *Langile espezializatu eta kualifikatuak edukita, erreparazioaren ikusmoldetik, ikuspegি feministarekin.*
- *Erreparaziorako eta ahalduntzeo esku-hartze prozesu guztieta, kudeaketa eta azkartasuna bermatzeko lan eginez.*
- *Tartean sartutako erakunde guztiekin koordinatuz, arreta eta erreparaziorako baliabideak egituratzeko, indarkeria matxistaren biktimen egoera erabat lehengoratuko dela eta urratutako eskubideak berrezarriko direla bermatzeko.*
- *Talde feministekin eta tokiko emakumeen elkarrekin modu estuan lankidetzen arituta, berdintasun-politikak eta ekintzak diseinatzeko, biktimei eta bizirik atera diren pertsonei arreta eta erreparazioari dagokionez.*
- *Era berean, dei egiten diegu herritar guztiei, udalerri guztieta A25 dela-eta antolatuko diren salaketa- eta aldarrikapen-ekintzetan modu aktiboan parte har dezaten.*

## **12.- GALDE-ESKEAK.**

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:40ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.**

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 22-10-2019 .

## **2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 19 de noviembre de 2019 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se da cuenta de la Resolución aprobatoria del expediente de modificación de créditos Nº 24

## **3.- INFORME TRIMESTRAL SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS PREVISTOS PARA EL PAGO DE LAS OBLIGACIONES DE ESTE AYUNTAMIENTO ( art. 4 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de noviembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.)**

En cumplimiento con lo dispuesto en el artículo 4 y 5 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, se da cuenta a la Corporación en Pleno del informe trimestral emitido desde tesorería en relación al Ayuntamiento sobre el cumplimiento de los plazos para el pago de las obligaciones adquiridas por este ayuntamiento correspondiente al tercer trimestre de 2019.

El Pleno, con la asistencia de 10 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

## **4.- REPAROS INTERPUESTOS POR SECRETARÍA-INTEVENCIÓN DURANTE EL SEGUNDO Y TERCER TRIMESTRE DE 2019**

Dado que por la Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento han sido efectuados una serie de Reparos de legalidad a Resoluciones y acuerdos adoptados por la Alcaldía desde el 1 de abril de 2019 al 30 de setiembre de 2019, de conformidad con lo dispuesto en el art. 218 del RDL 2/204 de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, se eleva informe al Pleno para dar cuenta de la Resoluciones adoptadas contrarias a dichos reparos.

A continuación se hace una reseña de las resoluciones y los reparos de los que ha tomado cuenta el Pleno:

**1.- INFORME REPAROS Nº 4 A CULTURA al reconocimiento de obligaciones por falta de justificación de fondos librados “a justificar” (FALTAN FACTURAS O ALGUNAS NO SON CONFORMES)(Anticipio PARCIAL de caja concedido al área de cultura, nº 3/2019)**

**2.-INFORME REPAROS Nº 5 A CULTURA al reconocimiento de obligaciones por falta de justificación de fondos librados “a justificar” (FALTAN FACTURAS O ALGUNAS NO SON CONFORMES)(Anticipio PARCIAL de caja concedido al área de cultura, nº 3/2019)**

**4.-INFORME REPAROS Nº 6 A CULTURA al reconocimiento de obligaciones por falta de justificación de fondos librados “a justificar” (FALTAN FACTURAS O ALGUNAS NO SON CONFORMES)(Anticipio de caja concedido al área de cultura, nº 4/2019)**

**5.-INFORME REPAROS Nº 7 A CULTURA al reconocimiento de obligaciones por falta de justificación de fondos librados “a justificar” (FALTAN FACTURAS O ALGUNAS NO SON CONFORMES)(Anticipio PARCIAL de caja concedido al área de cultura, nº 5/2019)**

